

# Zer omen den egia

Mitxelko Urangak 'Emognosia' saiakaera atera berri du Ereinen, XXV. Unamuno sariaren bitartez

**A**zken urteotan, COVID-19aren pandemiak geroztik bereziki, ugariak dira, eta oso erabiliak, zenbait hitz eta esapide berri edo berrizatu. Batzuk zuzenean ingelesez emanak dira, besteak, gehienak zeinek bere hizkuntzan moldatu ditu, euskaraz guk. Liburu honetan hitz –eta ideia– horiek eta antzekoak azaltzen dira: nondik datozen, nola zabaldu diren, zeinek erabiltzen dituen... eta, garrantzi handiko kontua, zertarako". Honela azaltzen du Mixel Uranga idazleak XXV. Unamuno saria irabaztera eramanean duen *Emognosia* liburuaren argumentua.

**–Zer da emognosia? Argituko zeniguke kontzeptua?**

–Emognosia (emozioak eta gnosiaren baturatik) bizi dugun egoera berri bat azaltzeko edo definitzeko nik asmatutako neologismoa da. Egia-ostea delakoa-ren arabera, egia ez du jada garrantzirik, antzua edo hutsala bilakatu zaigu; hots, inork ere ez dio egiaren egiazkotasunari erreparatzen, berdin zaigu. Hitzontzikeria da nagusi, denak balio omen du. Izan ere, ez ditugu egia guztiak maila berean jartzen, ezta gureak ez diren egia horiek errespetatzen ere. Hortaz, batetik, dauden egia guztien artetik bat hautatzeko emozioez baliatzen gara eta, bestetik, emozioez zipiritindurik dagoen heinean, behin gurea sentitzen dugunean, egia bakar gisa agertzen zaigu, beste egia guztien gainetik. Emozioa arrazoiari gailendu zaion garaia bizi dugun neurrian, iruditzen zait egia-irizpidea emozionala dela eta, beraz, egiaren ezagutzara emozioen bidez heltzen garela.

**–Beraz, beharrezkoa zitzaizun neologismo baten sorrera? Aurreko liburu batean izenbururako beste bat erabili zenuen, *misentropia*.**

–Ezin uka neologismoak eta hitz-jokoak gustuko ditudala. Horren adibidea da aipatzen duzuna. Emognosiaren kasua, ostera, desberdina da, ez baita ariketa edo joko hutsa, egun bizi dugun egoera berri bat izendatzeko beharrezkoa ikusten baina. Egia-osteak eta hitzontzikeriak definitzen duten egoera berria izanik, iruditzen zitzaizkan orain arteko kontzeptuak motz geratzen zirela, hots, ez zutela fidelitasunez definitzen bizi dugun garaia. Ez niri agertzen zaidan bezala. Ez dugu eszeptizismoa bizi, ezta erlatibismo postmodernorik ere, beste zer edo zer baik. Horregatik ikertzeari ekin nion, orain arte erabili diren kontzeptu berrien bila. Guztien artetik "hedonismo kognitiboa" iruditu zitzaizkan hurbilena, gus-tuko dugun egia hautatzen dugula dion heinean, baina ez zen nahikoa, ez baitzuen biltzen



**“Euskarak etengabe egon behar du eguneratzen eta berrizatzeko, bizi iraun nahi badu”**

arestian aipatu dudana aldaketa, emozioen gailentzea, alegia. Emognosia terminoak hori dena biltzen du, nire aburuz.


**–Liburu politikoa da...**

–Bai, bada, politika zentzu zabalean harturik eta ez alderdikeria gisa. Ezagutza edo epistemologiari heldu nahi nion arren liburuan, hori egiteko beka jaso bainuen Eduardo Apodaka eta Joseba Gabilondorekin batera, ezinezkoa egin zitzaizkan politikari muzin egitea. Alde batetik, epistemologia, ezagutza edo, beste barik, egia politikak zeharkaturik egon direlako beti eta, beraz, ezinezkoa zelako bati heltzea besteaz hitz egin barik. Beste alde batetik, baina aurrekoaren ondorioz, bizi dugun emognosiaren kausak ikertzeko orduan berehala ikusi nuelako sustrai edo erro politikoak zituztela, eta horiei ere heldu behar zitzaizela. Azkenik, horrenbeste aldarrikatzen den neutraltasuna edo ekidistantzia ezinezkoa iruditzen zaidalako (dagoena onartze baino ez baita), hau da, busti beharra dagoelako. Filosofiak berezkoa du kritikotasuna.

**–COVID-19an jartzen duzu abiapuntua, inflexio-puntua.**

–Bueno, ez dakit abiapuntua den, baina bai, diozun moduan, inflexio-puntu bat; ezohiko eta aparteko egoera bat, zeinetan areagotu eta bortizki azaleratu ziren lehenago hasitako joera batzuk. Horietariko bi dira negazionismoa eta konspiranoia, zeintzuek duten erlazio hertsia emognosiarekin. Izan ere, negazionistak eta konspiranoioak, biek ala biek, egia jakin bat hautatu dute emozioek gidaturik (haserre, besteak beste), eta gainontzeko egia arbuiatzen eta ukatzen dituzte. Beraientzat egia ezkutuko botere batzuek gu manipulatzeko ekoizitako egia bat da, beraiek baitira egia absolutuaren jabe. Erlatibismoa ez, beraiekin ez baitago hitz egiterik edo eztabaidatzerik, arrazoiak baino emozioek gidaturik bizi baitira.

**–Kontzeptu batzuk euskaratzea nahitaezkoa zen, ezta? Gehienak zuzenean ingelesez dute iturria. Nola ematen da, zure ustez, moldaketa? Gureganatze**



Mixelko Uranga, *Emognosia* eskuartearen duela. Argazkia: Gorka Rubio (FOKU)

**osoa posiblea al da, hitzekin batera datozen giro-ideiak gurera ekartzeko?**

–Bueno, has nadin esaten euskaraz idaztea, nire aldetik, hautu politikoa ere badela, gaztelaniaz egin bainezakeen. Eta, bide batez, erakutsi euskara ez dela animaliekin, haurrekin eta basamunduaz hitz egitera murrizten den hizkuntza, edozelako gaiak eta eremuak landu baitaitezke euskaraz, arazo barik. Filosofia ere euskaraz egin daiteke, nola ez? Baita Euskal Herriatik ere. Horregatik, batzuetan erdarazko hitzak itzuli beharra daukagu eta, bestetan, euskaraz hitz berriak sortu. Egoera berria definitzeko ingelesez edo bestelako hizkuntzaren termino berriak asmatu behar izan diren bezala, euskarak ere heldu behar dio erronka horri. Alde horretatik, liburuak ekarpena egin nahi dio euskarari ere.

**–Mitoak darabilzkizu...Mitoek ia dena azal dezakete...**

–Oso gustuko ditut mitoak, egia da. *Tartaroa* (Pamiela, 2015,

Euskadi saria) liburuak idatzi nuenean, adibiderako, gure gizartea eta kultura azaltzeko greziar mitoez baliatu nintzen, mitoak interpretazioetara zabalik daudelako. Ez dakit mitoei dena azal dezaketenean edo ez, baina argi daukat, mitoak gizakion buruhausteei edo arazoei irtenbide edo azalpen bat emateko sortuak izan diren heinean, balio dutela egungo arazoak azaltzeko ere. Are gehiago, mitoei, bereziki erabat ezagunak diren eta erabiliak izan diren mito klasikoek, filosofia modu ulerterrazago batean igortzeko aukera eskaintzen dute, pelikulek edota ipuin eta eleberriek egiten duten bezala. Liburuaren xedea komunikazioa izanik, asko errazten dute lana filosofia denean azaldu edo igorri beharrezkoa, askotan teknizismo eta teoria konplexuetan sartzeko joera baitaukat.

**–Inoiz baino premiazkoa da hizkuntzaren berritze hau? Hizkuntzek ere krisiak dituzte, arima gal dezakete?**

–Hizkuntzak biziak dira, inolaz

ere isolaturik dauden burbuila puruak; hizkuntzak aldatuz eta moldatuz doaz, hartuz eta utziz, nahasiz, adierazten duten errealtatearekin batera. Horrela, zer edo zer berria agertzen denean, hizkuntzak eskaini behar du berrikuntza hori izendatzeko edo azaltzeko zer edo zer. Hortaz, ez dut uste hizkuntzaren berritzea premiazkoa denik, berritzea berezkoa baitu hizkuntzak. Haatik, eta euskararen aldeko garbizalea ez naizen arren, euskarak maileguak betidanik onartu dituen arren, iruditzen zait ez dugula anglizismo oro beste barik onartu behar, ezta itzulpen hutsa murriztu ere. Euskarak, esate baterako, arima galduko du gorputza galtzen duenean, euskaraz bizi direnak desagertzen direnean, alegia. Eta hori gerta ez dadin, ezinbestekoa iruditzen zait, euskaraz bizitzearekin batera, akademiaren gain, hizkuntza arruntean ere hitz eta esamolde berriak asmatzea, uste baitut, besteak beste, gazteek maiz gaztelania hautatzen dutela euskarazko jergarik ezagutzen ez dutelako edo asmatzeko gai ez direlako. Euskarak etengabe egon behar du eguneratzen eta berrizatzeko, bizi iraun nahi badu.



**“Liburuaren xedea komunikazioa izanik, asko errazten dute lana filosofia denean azaldu edo igorri beharrezkoa”**